



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/07/11

Batzar Nagusiek soldaten bardintasunaren eta kirol inklusiboaren aldeko aurrerapausua emon dabe

Bizkaiko Batzar Nagusiek gaur goizean lortu dituen akordioak, Soldaten bardintasunaren eta kirol inklusiboaren ganeko ekimen bi Batzarraren aho bateko onespenean gauzatu dira. Akordio biak, Podemos Bizkaia taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bitik sortu dira.

Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek sinatu daben lehenengo akordioak dituan hamabi puntuetan, eskaria egiten jake Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Diputatuen Kongresuari, soldaten bardintasunaren arloan aurrera egin daien, soldata etenaren kontra jardunez, hainbat jarduketaren bitartez. Bizkaiko emakumeek egiten daben ordaindutako eta ordaindu bako beharra balioan jartez aparte, Batzarrak soldata etena baztertzeko neurriak indartzeko eta familiako eta laneko bizitza kontziliazinoa sustatuko daben neurriak zabaltzeko eskatu deusie Foru Aldundiari, beste batzuen artean.

Akordio horrek Eusko Jaurlaritzari be eskaria egiten deutso, beste batzuen artean, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskapenera baliabideak zuzendu daizan, soldatagaz erlacionautako edozein diskriminazio zigortzeko; eta, Emakundegaz batera, soldata etenaren eraginaren eta ezaugarrien ganeko aldizkako txostenak egin daizan.

Botoak bardinak izan diran moduan, esku-hartze guztiek be eretxi bera erakutsi dabe. Eneritz Madariaga Podemos Bizkaiko ordezkariak gogoratuazo dauenez, “soldata arloko diskriminazioa da gure gizarteko desbardintasuna erakusten eta iraunarazoten dauen alderdietako bat”. EH Bilduko Txusa Padronesek, bere aldetik, “seme-alabak eukiteak emakumeak pobretu eta gizonak aberastu egiten dituela” adierazo dau, eta hori “kontuan izan behar dala familiako politikak egiteko orduan”. Ildo berean egin dau berba Jesús Isasi popularrak: “zoritxarrez, emakumea bardin seme-alabak bardin ordaindutako beharra ekuazinoa kalean dago”.

Modu berean, Euskal Sozialistak taldeko Begoña Gilek “diskriminazio mingarrietako bat” dala azaldu dau, “gure bizimodua marketan eta modu negatiboan baldintzatzen dauena dalako”. Bere esku-hartzean, Talde Mistoko Arturo Aldecoak, Begoña Gilek esandako esaldi bat “funtsezkoa” dala esan dau: “Behar bardina egiten bada, soldata bardina”. Irene Edesa jeltzaleak, lortutako akordioa dala eta bertan egon diranak zorientzeaz aparte, “gizarte arloko antolakuntza barria eta ekonomien aldaketa behar dirala” esan dau, “emakumeen beharraren prekarietateari aurre egin ahal izateko”.

Onetsi dan bigarren proposamena, Podemos Bizkaiak Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztu daben bigarren zuzenketa-eskearen ostean etorri da. Bertan, Batzar Nagusiek azterlana egitea eskatzen deusie Foru Aldundiari, aniztasun funtzionala daukien personakaz behar egiten daben kirol eta gizarte arloko erakundeakaz batera, persona horreek kirola egiteko daukiezan aukerak handitzeko asmoz Foru Aldundiaren

jarduketa ildoan sakontzen lagunduko daben neurriak zehazteko. Talde guztiak bat etorri dira esatean, orain arte arlo horretan behar egin bada be, aurrerapausu handiagoak emon behar dirala.

BASO AZALERAREN KALIDADE EKOLOGIKOA

Gaur goizean, Batzar Nagusiek, ia aho batez –abstenidu egin dan Talde Popularra izan ezik– itaunetik eratorritako mozino bat onetsi dabe, Podemos Bizkaia taldeak planteautakoa, “bioaniztasunaren eta baso autoktonoaren hobekuntzarako eta kontserbazinorako” apustua egiteko; “babestutako espazio naturalen eremuan dagozan erabilera publikoko basoei lehentasuna emoteko”; eta basorako laguntzak bideratzeko, “titulartasun pribaduko basoko lurren kudeaketa eredian aldaketea bultzatzeko” xedez.

Josean Elguezabal proposamena aurkeztu dauen taldeko bozeroaleak eta EH Bilduko Mikel Kormenzanak, Bizkaiko basoen “gero eta egoera larriagoa” salatu dabe. Egoera horren errazoaia, Kormenzanaren berbetan, pinuen eta eukaliptuen presentzia da, “basoko masea monokultibo bilakatzen dabelako”. Aldeko botoa emon daben arren, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeetako María Presa eta Marimar Rodríguez batzarkideek, Foru Aldundiak daborduko martxan jarri dituan jarduketak dirala esan dabe. Gainera, batzarkide jeltzaleak esan dau ez datorrela bat EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek egin daben diagnostikoagaz, eta “antioju baltzak kentzeko” esan deutse talde bie.

Eduardo Andrés Talde Popularreko batzarkideak, bere aldetik, zehaztasun gehiago eskatu dau aldaketak planteetako orduan. Talde Misto Arturo Aldecoak proposamen “positiboak eta erabilgarriak” aurkezteko eskatu dau, helburu komuna lortzeko: 2050ean baso publiko gehiago egotea eta gehienek espezie autoktonoak eukitea.

ZAINTZAILEEN ESTATUTUA

Modu berean, Bizkaiko Batzar Nagusiek eztabaidatu eta ostean ez dabe onartu Podemos Bizkaia taldeak aurkeztutako Arauz Besteko beste Proposamen bat, beste eskari batzuen artean Zaintzaileen Estatutua baztertze eta inplikauta dagozan kolektiboakaz benetako partaidetza prozesua zabaltzeko.

Talde Popularrak eta EH Bilduk Estatutuan jasoten diran alderdi batzuekaz ados ez dagozala adierazo daben arren, ez dira baztertzearen alde agertu, eta, hori dala eta, Talde Mistoak egin dauen moduan, abstenidutea erabagi dabe. Esku-hartze horreek ikusita, Foru Gobernua eusten daben taldeek, Arauz Besteko Proposamena baztertzeaz aparte, hobekuntzarako proposamenak aurkezteko eskatu deutsee oposizinoko taldeei.

JARLEKUA HARTZEA

Ohiko Saioaren hasieran, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak ondo etorria emon deutse Miguel Ángel Gómez Viar Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Foru Diputatu barriari eta Carlos Totorika ordeztuz batzarkide jarlekua eskuratu dauen Isabel Cadaval Velez de Mendizabal sozialistari.

NOTA DE PRENSA

11/07/18

Las Juntas Generales de Bizkaia dan un paso en pro de la igualdad retributiva y el deporte inclusivo

Las Juntas Generales de Bizkaia han alcanzado esta mañana acuerdos que se han sustanciado en la aprobación unánime de la Cámara de dos iniciativas relativas a la igualdad retributiva y el deporte inclusivo. Ambos acuerdos parten de dos Propositiones No de Norma presentadas por Podemos Bizkaia.

En el primero de los pactos suscrito por los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, EH Bildu y Podemos Bizkaia se insta en un total de doce puntos tanto a la Diputación Foral de Bizkaia, como al Gobierno Vasco y el Congreso de los Diputados a avanzar en el ámbito de la igualdad retributiva y contra la brecha salarial a partir de una serie de actuaciones. Además de poner en valor el trabajo remunerado y no remunerado de las mujeres de Bizkaia, la Cámara insta a la Diputación Foral a reforzar las medidas para erradicar la brecha salarial, y a incrementar medidas que favorezcan la conciliación de la vida familiar y laboral, entre otras actuaciones.

Asimismo este acuerdo también insta al Gobierno Vasco, entre otras cosas, a destinar recursos a Inspección de Trabajo y Seguridad Social que permitan sancionar cualquier discriminación salarial; y a la elaboración, junto con Emakunde de informes periódicos sobre la incidencia y características de la brecha salarial.

Al igual que en el sentido de sus votos, todas las intervenciones han seguido una misma línea. La representante de Podemos Bizkaia, Eneritz Madariaga, ha recordado que “la discriminación salarial es uno de los factores que reproduce y perpetúa la desigualdad en nuestra sociedad”. Por su parte, Txusa Padrones, apoderada de EH Bildu, ha manifestado que “tener hijos e hijas empobrece a las mujeres y enriquece a los hombres” y que esto “debe tenerse en cuenta a la hora de elaborar políticas familiares”. En la misma línea, ha declarado el juntero popular Jesús Isasi: “por desgracia la ecuación mujer igual a hijos igual a trabajo remunerado está a pie de calle”.

De igual manera, por parte del grupo Socialistas Vascos, Begoña Gil, ha explicado que ésta se trata de “una de las discriminaciones más sangrantes” ya que “es la que marca y condiciona nuestra vida de manera negativa”. En su intervención, Arturo Aldecoa del Grupo Mixto, ha optado por definir como “clave” una frase de Begoña Gil: “A igual trabajo, igual salario”. La nacionalista Irene Edesa, además de felicitar a los allí presentes por el acuerdo alcanzado, ha declarado que “se necesita una nueva organización social y una transformación de las economías para hacer frente a la precariedad del empleo de las mujeres”.

La segunda aprobación parte de la aceptación, por parte de Podemos Bizkaia, de la enmienda presentada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. En ella las Juntas Generales instan a la Diputación Foral a realizar un estudio, en colaboración con entidades deportivas y sociales que desarrollen su labor con personas con diversidad funcional, para determinar medidas que ayuden a profundizar en las líneas de actuación de la Diputación Foral con la finalidad de aumentar las oportunidades de práctica

deportiva de dichas personas. Todos los grupos han coincidido en que, si bien se ha estado trabajando hasta ahora, es necesario avanzar más.

CALIDAD ECOLÓGICA DE LA SUPERFICIE FORESTAL

Las Juntas Generales también han aprobado esta mañana casi por unanimidad – a excepción del Grupo Popular que se ha abstenido- una moción derivada de interpelación planteada por Podemos Bizkaia para la apuesta por “la mejora y conservación de la biodiversidad y del bosque autóctono”; la “priorización de los montes de utilidad pública incluidos en el ámbito de espacios naturales protegidos”; y la reorientación de las ayudas forestales a fin de “impulsar un cambio en el modelo de gestión de los terrenos forestales de titularidad privada”.

Tanto el representante del grupo proponente, Josean Elguezabal, como el de EH Bildu, Mikel Kormenzana han denunciado una situación “cada vez más grave” de montes de Bizkaia, la cual radica, según Kormenzana, en la gran presencia de pinos y eucaliptos lo que “convierte esta masa forestal en monocultivos”. A pesar de haber votado favorablemente, las representantes de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, María Presa y Marimar Rodríguez, han manifestado que éstas son actuaciones ya puestas en marcha por parte de la Diputación Foral. Asimismo, la apoderada nacionalista ha asegurado no compartir el diagnóstico arrojado por EH Bildu y Podemos Bizkaia y ha instado a ambos grupos a mirar “a través del cristal transparente”.

Por su parte el apoderado del Grupo Popular, Eduardo Andrés, ha solicitado más concreción a la hora de plantear cambios. Arturo Aldecoa, del Grupo Mixto, ha animado a presentar propuestas “positivas y útiles” para un objetivo común: que en 2050 haya más montes públicos y que la mayoría tengan especies autóctonas.

ESTATUTO DE PERSONAS CUIDADORAS

De igual manera las Juntas Generales de Bizkaia ha debatido y posteriormente rechazado una Proposición No de Norma presentada también por el grupo Podemos Bizkaia para, entre otras peticiones, la retirada del Estatuto de las Personas Cuidadoras y la apertura de un proceso de participación real con los colectivos implicados.

Si bien tanto Grupo Popular como EH Bildu han expresado su disconformidad con algunos de los aspectos recogidos en el Estatuto no se han mostrado a favor de su retirada por lo que, al igual que el Grupo Mixto, han optado por la abstención. Ante estas intervenciones los grupos que sustentan al Gobierno Foral, además de rechazar la Proposición No de Norma, han instado a la oposición a presentar propuestas de mejora.

TOMA DE POSESIÓN DEL ESCAÑO

Al comienzo del Pleno Ordinario la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha dado la bienvenida al nuevo Diputado Foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Miguel Ángel Gómez Viar, y a la socialista Isabel Cadaval Velez de Mendizabal, quien ha tomado posesión de su escaño de juntera en sustitución de Carlos Totorika.